



**IRURTZUN**  
UDALA-AYUNTAMIENTO

## **INDUSTRIALDE PUBLIKOA INASA-REN LURSAILETAN**

2012aren bukaera aldera INASA FOIL S.A. inongo justifikaziorik gabe hondatu eta alde zuzenetik pentsatuta bidegabeki itxi zuen Baikap-ek. Ikusirik itxiera atzerabueltarik gabekoa zela eta, beti ere, langileekin kontaktuan eta momentuoro jakinaren gainean izanda, Irurtzongo Udalak gaiari ekin zion INASAREN lursaila “ industria-basamortu” ez bihurtzeko edo espekulaziorako ez saltzeko.

Garatu beharreko lana hiru ekinbidetan oinarritu zen:

1-Harremanetan egotea lursailaren kudeatzailearekin, hau da, GRUPO SINDICATURA SLP-rekin. Kontua zen zuzeneko informazioa izatea zein ingurumena birgaitzeko lanak kontrolatzea eta lursail salmentaren egoeraren berri izatea, baina benetakoa.

2-Gehiegi nabarmendu gabe, bilerak izatea inguruko enprekin, zein lursail premia daukaten jakiteko eta INASAra lekualdatzeko prest leudekeen.

3-Nafarroako Gobernuak inplikatzeko INASAREN lursailen industrialde posible baten garapenean.

Hainbat bileraren ondoren Grupo Sindicaturarekin, Udalak ondorioztatu zuen ezinezkoa zutela haiek lantegia beste enpresa ekoizle bati saldu ahal izatea eta, are zailago, sustatzaile bati etxegintzarako saltzea. Horrek esan nahi zuen, proiektu sendoa bat aurkeztuz gero, erosteko prezioa negoziatu zitekeela.

Enprekin izandako kontaktuek emaitzak izan zituzten eta haietako bostek dokumentu bat sinatu zuten non lursailen premia adierazten zuten (beharrezko metro kopurua zehaztuz) eta haien prestasuna INASAn izan zedin.

Bi premisa horiekin Irurtzongo Udalak, Nafarroako Gobernuaren onespenearekin, hasteko, NASUVINSAn teknikariekin bildu ziren. Grupo Sindicaturarekin izandako bileren berri eman eta enpresen eskaerak aurkeztu zitzaizkien. Teknikariek egoera ebaluatu zuten eta azterketa sakon baten zain, hainbat kontakturen buruan, ikusi zuten gaiari ekiteko aukera nabarmenak zeudela, baina erabakia politikoa izan behar zela.

Irurtzun eta Arakilgo Udalak Zarraluqui Kontseilariarekin zein NASUVINSAn zuzendariarekin bildu ziren gaia jorrazteko. Nahiz eta Nafarroako Gobernuak ez zuen zehazten bere prestasuna proiektuan parte hartzeko, Kontseilariak baiezkota eman zuen teknikariek gaia azter zezaten, eta horrek proiektuari zirikatu bat zabalik eskaintzen zion.

Momentu horretan foru eta udal hauteskundeak izan ziren eta bertatik Nafarroako Gobernu berria eta Irurtzongo Udal berria sortu ziren. Herriko Udalak lanean jarraitzen du eta ekin eta ekin ari da proiektuarekin, NASUVINSAn teknikiariak bezalaxe. Gainera, aurrerapen nabarmenak izan ditu hasitako lanak.

Bilerek ez dute etenik izan Aierdi jaunarekin, NASUVINSAn kudeatzailea baita, eta jorratutako lanen ondorioz, Nafarroako Gobernuak Inasaren lursaila erostearen aldekoa da, eta,

beraz, proiektua gauzatzearena ere bai. Horrek argi uzten du, 2012az geroztik, UPNren Gobernuia izandakoaren borondate politiko eza edo gaitasun eza egoera hori konpontzeko.

Industrialdea garatzeko ildoak burutzen ari dira (lursailak, hirigintza-berrantolamendua, azpiegiturak birsortzea...), eta horretan Udala lankidetzan ari da, onartuz urbanizatzegatik dagokion %10 konpentsatu egingen dela “Inasako bulegoen eraikina”rekin, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoari oreka emanen baitio.

Gaur egun industrialdea lehenbailehen gauzatu beharreko errealitatea da, eskatu duten enpresei lurzorua emateko eta interesa agertu zein kontsultatu dutenei ere erantzuteko. Horretaz gain, azpimarratu behar da Irurtzongo Udala harremanetan dagoela autobiarekin irteera lotzeko Izurdiagako saihesbidetik Iruñerantz, horrela trafikoa herri barnetik ez pasatzea lortuko bailitzateke.

Enpresarien konpromisoa, proiektua gauzatzeko Nafarroako Gobernuaren erabaki politikoa eta Irurtzongo Udalaren ahalegina eta lana izan dira ekinbide honen zutabeak; izan ere, Inasa ixtearen ondorio larriak konponduko ez baditu ere, (ez jendearena, ez ekonomia), oinarriak, behintzat, jartzen ditu aurrera begira herria berrindustrializatzeko.

Irurtzunen 2016ko urriaren 11an.

**Alkatea**

**Aitor Larraza Carrera**

